**ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA**

IRAGARKIA, otsailaren 14ko 22/2006 Dekretuan jasotako diru-laguntzen eskariei buruzko espedienteak osatzeko dokumentazioa eskatzeko dena. 22/2006 Dekretuan ezarrita daude askatasun-gabetzea jasandako pertsonei, Langile Soldaduen Diziplina Batailoietan egondakoei barne, konpentsazio ekonomikoak emateko ebazpenak, Amnistiari buruzko Legean jasotako kasuen ondorioz askatasun-gabetzea jasan zuten pertsonentzako konpentsazioari buruzko azaroaren 19ko 280/2002 Dekretuan araututako baldintza eta betebeharrak izan ditzaten, arau honetan aurreikusitako prozedura-aldaketak salbu (EHAA, 34. zk., 2006ko otsailaren 17koa). 19387

# Xedapen Orokorrak

**INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA**

**4889**

178/2006 DEKRETUA, irailaren 26koa, zainaren bidez aldatu egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-enpresa eta -establezimenduen erregistroa sortzen duen Dekretua.

Turismoa antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 10. artikuluan ezartzen denez, turismo-enpresa eta -establezimenduak Euskal Autonomia Erkidegoko Turismo Enpresen Erregistroan inskribatu behar dira, eta, aukeran, bestelako jardunak ere inskribatu ahal izango dira, baldin eta, eskainitako zerbitzuak, establezimenduak edo bestelakoak turismorako interesgarri izanda, arautegiaren arabera Euskadiko turismo-eskaintzaren barruan sartzeko modukotzat jotzen badira.

Aipatu artikuluan aurreikusitako garatzearren, Euskal Autonomia Erkidegoko Turismo Enpresa eta Establezimenduen Erregistroa sortzeko irailaren 2ko 199/2003 Dekretua onartu zen (2003ko urriaren 2ko EHAAren 192. zk.).

Geroztik, aipatu dekretua indarrean zelarik, dekretu horren artikuluetan zenbait aldaketa egin beharra ikusi da, zehazki, 6. artikuluan.

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak proposatuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko irailaren 26an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES**

ANUNCIO por el que se procede al requerimiento de documentación para completar expedientes relativos a las solicitudes de ayudas contempladas en el Decreto 22/2006, de 14 de febrero, por el que se establecieron disposiciones para compensar económicamente a las personas privadas de libertad, incluida la padecida en Batallones Disciplinarios de Soldados Trabajadores, con las mismas condiciones y requisitos regulados en el Decreto 280/2002, de 19 de noviembre, sobre compensación a quienes sufrieron privación de libertad por supuestos objeto de la Ley de Amnistía, salvo las modificaciones de procedimiento previstas en dicha norma (BOPV n.º 34, de 17 de febrero de 2006). 19387

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO**

**4889**

DECRETO 178/2006, de 26 de septiembre, de modificación del Decreto por el que se crea el registro de empresas y establecimientos turísticos del País Vasco.

El artículo 10 de la Ley 6/1994, de 16 de marzo, de ordenación del Turismo, establece que las empresas y establecimientos turísticos, deberán inscribirse en el Registro de Empresas Turísticas del País Vasco y que, potestativamente, podrán inscribirse otras actividades que, por sus servicios, instalaciones o interés para el turismo, se consideren reglamentariamente suficientemente relevantes para ser incluidos en la oferta turística de Euskadi.

En desarrollo de lo previsto en el citado artículo, se aprobó el Decreto 199/2003, de 2 de septiembre, por el que se crea el Registro de Empresas y Establecimientos Turísticos del País Vasco (BOPV n. 192, de 2 de octubre de 2003).

Posteriormente durante la vigencia del citado Decreto se ha visto la necesidad de realizar determinadas modificaciones al articulado del mismo, concretamente al artículo 6.

En su virtud, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, a propuesta de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 26 de septiembre de 2006,

XEDATU DUT:

*Artikulu bakarra.–* Euskal Autonomia Erkidegoko Turismo Enpresa eta Establezimenduen Erregistroa sortzeko irailaren 2ko 199/2003 Dekretuaren 6. artikuluko 1. paragrafoa (Erregistroaren osaera eta edukia) aldatzen da, eta aurrerantzean honelakoa izango da:

«6. artikulua.– Erregistroaren osaera eta edukia.

1.– Turismoko Enpresa eta Establezimenduen Erregistro informatizatuan honako datu hauek jasoko dira:

a) Turismo-establezimenduari buruzko identifikazio-datuak (izena, identifikazio-zenbakia, kokapena, telefonoa, faxa, e-mail, Web orria…).

b) Turismo-enpresaren izendapena edo sozietatearen izena, kudeatzailearena eta legezko ordezkariarena.

c) Jardueraren baimena eta sailkapena (taldea, mota, modalitatea eta kategoria), edo, hala badagokio, turismo-trafikoan jarduteko jakinarazpena edo turismo-arloan jardun ahal izateko nahitaezko beste gaikuntzaren bat, horien datak, eta establezimenduaren plaza kopurua.

h) Establezimendua itxi izana.»

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2006ko irailaren 26an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

DISPONGO:

*Artículo único.–* Se modifica el párrafo 1 del artículo 6 «Composición y contenido del Registro» del Decreto 199/2003, de 2 de septiembre, por el que se crea el Registro de Empresas y Establecimientos Turísticos del País Vasco, que quedará redactado en los siguientes términos:

«Artículo 6.– Composición y contenido del Registro.

1.– En el Registro informatizado de empresas y establecimientos turísticos se inscribirán los siguientes datos:

a) Datos de identificación del establecimiento turístico (denominación, número de identificación, localización, teléfono, fax, e-mail, página Web...).

b) Razón social o denominación de la empresa turística, gerente y representante legal.

c) Autorización de actividad y clasificación (grupo, clase, modalidad y categoría) o en su caso notificación de dedicación al tráfico turístico u otra habilitación preceptiva para el ejercicio de la actividad turística, fecha de las mismas y número de plazas del establecimiento.

d) Cierre del establecimiento.»

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 26 de septiembre de 2006.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Industria, Comercio y Turismo,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.